Baztango
Udala

ALMANDOZ · AMAIUR · ANIZ
ARIZKUN · ARRAIOZ · AZPILKUETA
BERROETA · ELBETE · ELIZONDO
ERRATZU · GARTZAIN · IRURITA
LEKAROZ · ORONOZ · ZIGA

Udal honek onartu nahi du **ORDENANTZA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEKO ETA OBRA ETA JARDUERAK ALDEZ AURRETIK KOMUNIKATZEKO PROZEDURAK ARAUTZEN DITUENA**

Herritarrek erregelamendu-mailako arauak egiteko prozeduran parte hartuko dutela bermatzeko, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa betez, aldez aurreko kontsulta publiko bat egiten da herritarren eta eragin diezaieketen erakunde ordezkarien iritzia jasotzeko.

Ondorioz, udal-ordenantza egin aitzinetik, jendaurrean ondokoa jarri da:

MEMORIA

a) Aurrekariak:

Baztango bailarak obra-eskaera aunitz kudeatzen ditu urtero. Horietatik ehuneko handi bat zuzenago kudea daiteke, hau da, herritarrak jarduketak hasi aitzinetik erantzun bat jasotzera behartu behar izan gabe, obra-lizentzia bat. Administrazio-izapideak arintzeko, **ORDENANTZA, ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENEKO ETA OBRA ETA JARDUERAK ALDEZ AURRETIK KOMUNIKATZEKO PROZEDURAK ARAUTZEN DITUENA** onartu nahi da.

b) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak:

Arintasuna administrazio-izapideetan, berehalakotasuna herritarren jardunean.

*Este Ayuntamiento pretende aprobar la* ***ORDENANZA REGULADORA DE LOS PROCEDIMIENTOS DE DECLARACIÓN RESPONSABLE Y DE COMUNICACIÓN PREVIA EN OBRAS Y ACTIVIDADES***

*Con el objetivo de garantizar la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas con rango reglamentario, y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas con carácter previo a la elaboración de la Ordenanza, se sustancia una consulta pública previa para recabar la opinión de la ciudadanía y de las organizaciones más representativas que potencialmente se puedan ver afectados por la misma.*

*En consecuencia, se somete a consulta pública previa a la elaboración de la Ordenanza municipal, la siguiente*

*MEMORIA*

*a) Antecedentes:*

*El valle de Baztan gestiona un número muy importante de solicitudes de obra anualmente. De las cuales un porcentaje alto se pueden gestionar de una forma más directa, es decir, sin tener que obligar a la ciudadanía a obtener una respuesta previa al inicio de actuaciones, una licencia de obras. Con la finalidad de agilizar los trámites administrativos se pretende la aprobación de una* ***ORDENANZA REGULADORA DE LOS PROCEDIMIENTOS DE DECLARACIÓN RESPONSABLE Y DE COMUNICACIÓN PREVIA EN OBRAS Y ACTIVIDADES***

*b) Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa:*

*Agilidad en la tramitación administrativa, inmediatez en la actuación ciudadana.*

c) Onarpenaren premia eta egokitasuna:

Premia hori hirigintzako arauditik bertatik dator, eta, zehazki, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 192. artikulutik.

d) Ordenantzaren helburuak:

Baztango udalerrian kokatutako establezimendu, lokal eta obra jakin batzuei buruzko udal esku-hartze prozedurei aplikatu beharreko araubide juridikoaren alderdi orokorrak arautzea, sustatzaileak aurreikusitako jarduerak eta erabilerak hasteko eta gauzatzeko eskatzen den izapidetzeari eta dokumentazioari dagokienez. Hauek bereizten dira: 1.- erantzukizunpeko adierazpena; 2.- aitzinetik komunikatzeko.

e) Ahalbide alternatibo erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak:

Ez da aurreikusten.

Ediktu hau udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo hogei egunetan, hala nahi duten herritarrek, erakundeek eta elkarteek beren iritziak helarazi ahal izanen dituzte posta elektroniko honen bidez: ekarpenak@baztan.eus **gaian ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA jarriz.**

Baztanen, 2020ko urriaren 9an

Alkatetza

*c) Necesidad y oportunidad de su aprobación:*

*La necesidad deriva de la propia normativa urbanística y en concreto del artículo 192 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se Aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo*

*d) Objetivos de la ordenanza:*

*Regulación de los aspectos generales de régimen jurídico aplicable a los procedimientos de intervención municipal relativos a los establecimientos, locales y ciertas obras, ubicados en el Municipio de Baztan, con relación a la tramitación y documentación exigida para el inicio y ejercicio de las actividades y usos previstos por el/la promotor/a. Distinguiéndose: 1.- Declaración Responsable; 2.- Comunicación previa.*

*e) Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias:*

*No se aprecian*

*Durante el plazo de los veinte días siguientes a la publicación del presente Edicto en el sitio web municipal ciudadanos/as, organizaciones y asociaciones que así lo consideren, podrán hacer llegar sus opiniones a través del siguiente buzón de correo electrónico: ekarpenak@baztan.eus señalando en el* ***asunto ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.***

*En Baztan a 9 de octubre de 2020*

*La Alcaldía*

BAZTAN BALLEKO UDALA
BAZTAN
Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan